


JULES VERNE

Jules Verne idazle frantses ospetsua 1828. urtean jaio zen eta 1905.ean hil. Zientzia-fikziozko nobelen aitzindaria izan zen idazle horrek dohain berezia erakutsi zuen, bere lanetan etorkizuna aurrez ikustekoa, hain zuzen ere. Irakurri bestela 1865. urtean idatzirik «Lurretik Ilargira» nobelaren hurrengo pasartea.

«Erlojuak hamarrak seinalatzen zituen. Jaurtigaian sartzeko ordua zen jadanik, bertara jaitsi, estalkia itxi eta Columbiaren ahorantz zuzenduriko garabiak eta aldamioak kentzeko, denbora dezente beharko baitzuten.



Barbicanek doitua zuen bere kronometroa, Murchissonenarekin, txinparta elektrikoaren bidez metxa piztuko zuen gizonarenarekin, segundo hamarrenetan ere bat egin zezan. Horrela, jaurtigai barruko bidaiariak begiradaz jarraitu ahal izango zioten orratzen ibilbideari, harik eta abiatzeko une zehatza seinalatu arte.

Heldua zen, beraz, agur esateko unea.




Handik gutxira, hiru lagunak jaurtigaian kokaturik zeuden, bakoitza bere lekuan jezarriarik, eta itxia zuten estalkia barruko aldetik.

Columbiaren burua zerura adi zegoen, inolako traba edo oztoporik gabe. Nicholl, Barbicane eta Michel Ardan beren metalezko bagoiaren barruan zeuden azkenean. Berebiziko isiltasun ikaragarria zen nagusi. Ezta haizekolperik txikiena ere Lurrean!

Bihotzak taupaka hastearen beldur ziren. Begi guztiak zeuden Columbiaren ahora zuzen-zuzen begira, urduri.

Murchisonek begiradaz jarraitzen zien kronometroaren orratzei. Berrogei segundo eskas falta ziren abiatzeko eta bakoitzak mendea zirudien.



Hogeigarrenean guztiak dardarka ziren, eta ez zen inor jendetzaren artean bidaiari ausartak segundoak zenbatzen ari zirela pentsatu ez zuenik. Oihuren bat edo beste entzun zen.

-Hogeita hamasei Hogeita hamazazpi. .. Hogeita hamazortzi ... Hogeita hemeretzi Berrogei. .. Jaurti!

Berehala Murchisonek, aparatuaren botoia sakatuz, korronteari eragin eta txinparta elektrikoa bidali zuen Columbiaren erraietara.

Eztanda izugarria, egundokoa, benetan itzela, harrabots handiena baino handiagoa, tximistaren leherketa baino ikaragarriagoa, erupzio beldurgarrienak sortutako burrunba baino ozenagoa, gertatu zen bat-batean. Su-habe erraldoia irten zen Lurraren erraietatik. Beheak dar-dar egin zuen eta ikusle gutxi batzuek jaurtigaia sumatu ahal izan zuten istant batez, lurrin kartsu eta itxien artean, airea zeharkatuz».

GALDERAK

1. Zeinek du irakurgaiko «jaurtigai» hitzaren esanahi bera?

2. Azaldu beste hitz batez zer diren «lurraren erraiak».

3. Nolakoa zen Columbiak jaurtitzean sortu zuen lurruna? Azpimarratu erantzun zuzena

a) Oso zaratatsua eta itxia.

b) Oso sutsua eta trinkoa.

4. Nola abiarazi zuten Columbia jaurtigaia?

5. Zer dela-eta doitu behar zuten kronometroa?

6. Zenbat lagunek osatzen zuten Columbiako eskifaia?

7. Zer pentsatzen zuten ikuskizunari adi zegoen jendeak?

8. Ordenatu gertakariak zenbakien bidez.

___ Kronometroaren laguntzaz, denbora neurtu zuten.

___ Hiru lagunek jaurtigaiaaren estalkia itxi zuten.

___ Murchissonnek botoia sakatu eta jaurtiketa eragin zuen.

9. Aukeratu adjektibo egokiak. Nolakoa izan zen Columbiak abiatzen sortu zuen eztanda ?

☐ Nolanahikoa

☐ Berebizikoa

☐ Demasa

☐ Zolia.

10. Zer dohain berezi zuen Jules Vernek?
